



2000KO APIRILAREN 18KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako apirilaren hemezortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Jose Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2000ko otsailaren 14an eta martxoaren 7an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Alkatezako Ebazpen hauen artean 1999 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren onarpenarena dagoela azpimarratu eta honen berri ematen du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- HIRIGOIEN, 48KO ZESIOKO LURSAILA OKUPATU ETA UDALAREN IZENEAN INSKRIBATZEA.-

Udal Batzorde Iraunkorrek, 1976ko abenduaren 1ean egindako batzarraldian hartutako akordio bidez, JOSE ANTONIO IRULEGI ARROJERIA J.ren jabetzako izan eta 44 Poligonoko 15. lursailari zegozkion 17 eta 18 orubeetan, gaur egunean Lazkaoko Hirigoien Kaleko 48 zenbakia daraman eraikina kokatzen denekoan, egoitzara zuzendutako eraikin bat eraikitze obra baimena ematea erabaki zuen. Eremu horretako Plan Partziala, Hirigintza Lurralde Batzordeak 1975eko maiatzaren 23an egindako batzarraldian behin betikoz onartua izan zen.

Eraikuntza lanak amaitu ondoren eta Ordiziakoa izan zen Pedro Payrós Agirrezabala Notarioak baimendutako eskrituran, 1978ko urriaren 30ean obra berriaren aitortpena eta eraikinaren konfigurazioa jabetza horizontalean 992,00 m²ko lursailaren gainean formalizatu ziren. Aipatu eskrituran zehazten denez, eraikinak eraikitako 216,00 m²ko azalera okupatzen du. Gainontzeko azalera, hau da, 776,00 m², garai hartan lurraren jabeak ziren Jose Antonio

...///...



...///...

Irulegui Arrojeria J. eta Maria Josefa Azpiazu Bengoetxea A. bere emazteak Lazkaoko Udalarri zeditu beharrekoa zen, honek Udal Ondarearen Inbentaria gehitu zezan, eta hau ez zen bete.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 1991ko irailaren 24an egin-dako batzarraldian, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak behin betikoz onartu zituen. Aipatu dokumentuak mugatu eta ordenantzen dituen eremuen artean 4 Hirigintz Area aurkitzen da eta honen birurbanizatzeko proiektua Udal Osoko Bilkurak 1994 maiatzaren 26an egin-dako batzarraldian behin betikoz onartua izan zen. 4 Hirigintz Area honetan kokatzen diren eta lehen aipatu diren 776,00 m²ek ez dute inolako hirigintz aprobetxamendurik sortzen, aipatu eraikinaren eraikuntzarekin agortua gelditu bai zen.

Egoera hau erregularizatzeko asmoz eta erregistro titularren aldetik lursail hau zeditze-ari ezetza eman izanaren aurrean, Udalak jabetza kentze espediente bat zabaldu zuen baina bere izapidatzea geldiarazi egin da, izan ere honelako kasuetarako uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuak, Hirigintz Izaerako Egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruz Hipoteka Legea burutzeko Arautegiaren Arau Osagarriak onartzen dituenak, prozedura bat ezarri bai zuen.

Aipatu aurrekariaren oinarriarekin eta aipatu arauzko xedapeneko 30 eta 31 artikuluetan xedatutakoarekin bat, Alkatetzak, 2000ko otsailaren 18ko ebazpen bidez, zera erabaki zuen:

Lehenena.- Aurreko aurrekarietan azaldutako egoera zuzentzeko espedientea hastea eta Tolosako Jabetza Erregistroan, 1.049 Tomoan, 22. folioan, 3.043 zbk.dun finkan barneratzen den 776,00 m²tako lursaila okupatu eta Lazkaoko Udalaren izenean inskribatzea. Finka honetatik departamentu guztiak segregatu egin ziren eta finka berriak ondorengo zenbaki hauenpean inskribatuta daude:

Departamentu zkia. 1: Liburua 52, Folioa 67, Finka 1143.
Departamentu zkia. 2: Liburua 50, Folioa 31, Finka 4045.
Departamentu zkia. 3: Liburua 50, Folioa 34, Finka 4046.
Departamentu zkia. 4: Liburua 50, Folioa 28, Finka 4044.
Departamentu zkia. 5: Liburua 67, Folioa 39, Finka 4578.
Departamentu zkia. 6: Liburua 58, Folioa 116, Finka 4281.
Departamentu zkia. 7: Liburua 52, Folioa 73, Finka 1145.
Departamentu zkia. 8: Liburua 52, Folioa 29, Finka 4158.
Departamentu zkia. 9: Liburua 65, Folioa 196, Finka 4537.
Departamentu zkia. 10: Liburua 52, Folioa 1, Finka 1145.
Departamentu zkia. 11: Liburua 66, Folioa 58, Finka 4555.
Departamentu zkia. 12: Liburua 66, Folioa 1, Finka 4539.
Departamentu zkia. 13: Liburua 58, Folioa 113, Finka 4280.
Departamentu zkia. 14: Liburua 67, Folioa 42, Finka 4579.
Departamentu zkia. 15: Liburua 57, Folioa 20, Finka 4272.
Departamentu zkia. 16: Liburua 53, Folioa 102, Finka 4179.

Bigarrena.- Ebazpen hau aipatu azaleraren erregistroko jabe gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea, ebazpen honen jakinarazpenetik kontatzen hasita 30 lanegunetako epean, egoki derizkioten oharpen eta alegazioak egin ahal izango dituztela azalduz.

...///...



...///...

Hirugarrena.- Azalera hori aprobetxamenduarekin konputatuko duen berdinbanaketa proiektua izapidatzea ez dela egokia aipatu interesatuei azaltzea, berau Hirigoien Kalearen 48. zbk.dun eraikina eraiki zenean gauzatu zelako, eta eraikin hau Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioek kontsolidatu egiten dute.

Laugarrena.- Hartutako erabakiari atxikitako gainontzeko zehaztapenak betetzea."

Alkateak hartutako ebazpenaren berri aipatu azaleraren jabe erregistroko jabe gisa agertzen diren guztiei jakinarazi eta 30 lanegunetako epean ez da inolako erreklamaziorik jaso, espedientean dagoen idazkari-kontuhartzailearen ziurtagiritik ondorioztatzen denez.

Hau honela eta gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

Akordio honen aurrekarietan azaldutako egoera zuzentzearen Tolosako Jabetza Erregistroan 1.049 Tomoan, 22. folioan, 3.043 zbk.dun finkan barneratzen den 776,00 m²tako lursaila okupatu eta Lazkaoko Udalaren izenean inskribatzea. Finka honetatik departamentu guztiak segregatu egin ziren eta finka berriak ondorengo zenbaki hauenpean inskribatuta daude:

- Departamentu zkia. 1: Liburua 52, Folioa 67, Finka 1143.
- Departamentu zkia. 2: Liburua 50, Folioa 31, Finka 4045.
- Departamentu zkia. 3: Liburua 50, Folioa 34, Finka 4046.
- Departamentu zkia. 4: Liburua 50, Folioa 28, Finka 4044.
- Departamentu zkia. 5: Liburua 67, Folioa 39, Finka 4578.
- Departamentu zkia. 6: Liburua 58, Folioa 116, Finka 4281.
- Departamentu zkia. 7: Liburua 52, Folioa 73, Finka 1145.
- Departamentu zkia. 8: Liburua 52, Folioa 29, Finka 4158.
- Departamentu zkia. 9: Liburua 65, Folioa 196, Finka 4537.
- Departamentu zkia. 10: Liburua 52, Folioa 1, Finka 1145.
- Departamentu zkia. 11: Liburua 66, Folioa 58, Finka 4555.
- Departamentu zkia. 12: Liburua 66, Folioa 1, Finka 4539.
- Departamentu zkia. 13: Liburua 58, Folioa 113, Finka 4280.
- Departamentu zkia. 14: Liburua 67, Folioa 42, Finka 4579.
- Departamentu zkia. 15: Liburua 57, Folioa 20, Finka 4272.
- Departamentu zkia. 16: Liburua 53, Folioa 102, Finka 4179.

IV.- 2000 EKITALDIKO AURREKONTUA.-

Alkateak 2000 ekitaldiko aurrekontu proiektuaren azalpena egiten du. Esaten du aurrekontu honek aurtengorako sarrera eta gastuen partidaz gain aurten hasi eta datozen ekitaldietarako konpromisuzko kredituak barneratzen dituen gastuak dituela baita ere, 2001 eta 2002 ekitaldietarako hain zuzen ere, eta gastu hauek honako hauek direla:

...///...



...///...

GASTUA	KREDITUAK			
	Aurretik	Ordainketaz-koak	Konpromisuzkoak	
	1999	2000	2001	2002
Orobioneren birreraikuntza	11.172.399,-	60.237.474,-	80.000.000,-	40.000.000,-
AA.SS.en berrikuskaketa		8.000.000,-	8.000.000,-	
Anbulategi inguruko urbaniz.		5.000.000,-	10.000.000,-	

Orobioneren birreraikuntza partidari dagokionean esan behar da 2000 urterako aurrakusten dena, aurtengo 42.000.000,- pta. gehi iaz partida horretan geratu eta aurtengora txertatu den 18.237.474,- pta.ren batuketak egiten dutela guztizko zenbateko hori.

Honez gain Alkateak 2000 ekitaldiko aurrekontu proposamen honetan barneratu diren inbertsioak banan banan zerrendatzen ditu.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek ontzat ematen dutela aurrekontu hau.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du urte garai honetan, jadanik apirilean, eta aurrekontua eta 209 milioitako kreditu aldaketa espedientea egun berean onarpenera ekartzea aurrekontu teknika bezala nahiko txapuzeroa iruditzen zaiola, aurrekontuak ez daramala ez da memoria bat ere eta hau noski gobernuan dagoen koalizioa eta EHren arteko arazoa dela. Baita ere esaten du gauza bat negoziazio batean ez sartzea dela eta bestea formak gordetzea dela. Esaten du baita ere babesik gabe sentitzen dela ze ezin duela bi minututan planteatzen den kreditu aldaketaren erantzuna prestatu. Esaten du baita ere bestalde badagoela printzipiozko alde bat eta beraiek ez dutela aurrekontu honetan arduradun izan nahi legegintzaldi hasieratik gobernu ekipotik kanpora utziak izan direnean eta integrazio eza eta Udalbiltzaga-tik apostu egiten duen aurrekontu bat denean. Esaten du baita ere bere egunean ere ordenantza fiskalen aldaketak ez zituztela onartu eta horiek orain sarreretan islatzen direlarik ba aurrekontua ere ez dutela onartuko. Esaten du baita ere bere iritziz aurrekontu administratiboa dela, proiekturik ez duena, ideia berririk ez dagoela. Esaten du baita ere beraiek hainbeste lan egin zuten eskola-tailerraren proiektua ere falta dela eta lan sustapen arloan horren alternatiba izan zitekeen besterik ere ez dagoela. Baita ere esaten du lehendik hartutako konpromezuen betetze eza ikusten duela, hala nola, Balmasedaren lurraren erosketarena garajeen eraikuntzarako, Areria zinemari buruz dagoen bakarria EHren biabilitate azterketa proposamena dela gai horrekin urte pila bat daramatenean. Baita ere Santa Magdalenako Errotondarena ere kritikagarria dela, bizilagunen ezadostasuna ere hor dagoelarik.

Estensoro zinegotziak (EAJ-PNV, EA) Dopazori erantzunez esaten du azken lau urte hauek kenduta, beraiek bi legegintzaldietan gobernuan egon direnean aurrekontua onartzearen praktika oraingoaren antzekoa izan dela. Baita ere esaten du egia dela memoria ez dela egin eta egingo balitz hobeto baina berak Udalean daramatzen 13 urtetan behin ere ez dela egin. Udalbiltzari buruz esan duenari esaten dio baietz, egia dela konpromezu hori hartu dutela eta horretan jarraituko dutela. Baita ere esaten dio egia dela denbora asko pasatu dela baina legegintzaldi hasierako aurrekontua dela kontutan izan behar dela eta berari ere behin eta berriro gonbitea pasatu zaiola aurrekontu horretan parte hartu dezan eta lau urtetarako proiektu eta helburuei buruz aztertze bileratan parte har zezan, baina bera dela etorri ez

...///...



...///...

dena. Eskola Tailerrari buruz esaten dio gaur egungo egoera eta aurreko legegintzaldian zegoena oso ezberdina dela, gaur egungo langabezia askozaz txikiagoa delarik, eta eskola-tailerraren bideragarritasuna ez dela lehengoarena bezalakoa. Balmasedaren lurrari buruz esaten du arkitektoa azterketa sakon bat egiten ari dela eta azterketa horren emaitzak laister ikusiko direla. Santa Magdalenako errotondari buruz berriz esaten dio denen artean kontsentsuatutako proiektua dela eta espero duela obrak amaitzen direnean jendea gustora geldituko dela.

Dopazo zinegotziak Estensoro zinegotziak esandako puntu guztiei erantzuten die banan bana, honek esandakoekiko bere ezadostasuna agertuz.

Amundarain zinegotziak Dopazori erantzunez esaten dio beraiek ere oposizioan daudela baina batzorde guztietara joaten direla eta proposamenak egiten dituztela eta batzuetan onartzen zaizkiela eta beste batzuetan ez. Gaineratzen du aurrekontu hauetarako beraiek aurkeztu duten proposamena ez dela erabat berria, lehen ere EAJ eta EAekin izandako bileretan aurkeztua zutela.

Dopazo zinegotziak erantzuten dio azken hori ez doala berarekin ze gauza bat alderdien arteko bilerak direla eta beste gauza bat Udaleko batzordeak. Batzordeetan parte hartzeari buruz esaten du ez dela gauza bera Gobernu Batzordean parte hartzeko gonbitea jaso eta berak ezetz esatea ez zaiolako behar adinako eskeintza iruditzen, ezta gonbiterik jaso izana izatera. Amaitzen du esanez lehen ahaztu egin zaiola esatea baina beraiek ere programa bat atera zutela eta han beraien asmo eta proposamen guztiak jasota daudela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Dopazok esan duenaren haritik egia dela proposamen hauetan ideia berri gehigirik ez dagoela baina azken batean azterketak horretarako daudela eta alderdi guztien azterketetatik ideiak aterako direla eta datozen urteetako aurrekontuetan ikusi beharko da ideia hoietatik zein jaso herriak dauzkan beharren arabera.

Alkateak esaten du ados dagoela behar bada hau ez dela modurik egokiena esaten denean eta alde horretatik autokritika egin nahi duela. Baita ere Dopazok egindako kritikei erantzuten dio.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EA, EH), eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

Lehen.- Akordio honen aurrekarietan zehazten diren konpromisu kredituak onartzea.

Bigarrena.- Ondorengo kapitulukako laburpenak dituen 2000ko Udal Aurrekontua haserako itzaeraz onartzea:

...///...



...///...

2000KO AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	104.920.000,-
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	26.000.000,-
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	87.860.000,-
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	277.530.000,-
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	2.810.000,-
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	260.000,-
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>499.380.000,-</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	138.940.000,-
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAS- TUAK	185.730.086,-
III	KAPITULUA	FINANTZA-GASTUAK	3.000.000,-
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	65.540.800,-
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	77.500.000,-
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	15.669.114,-
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	13.000.000,-
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>499.380.000,-</u>

Hirugarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Laugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako 2000ko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da. Honek aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adierazten du, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

...///...



...///...

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta, aldeko 9 botuz (EA), EA, EH) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarri-en bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko Kapitulumakako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izendapena	IGOERAK
II	Ondasun arrunt eta zerb. gastuak	30.000.000,-
IV	Transferentzia arruntak	5.000.000,-
VI	Inbertsio errealak	174.955.798,-
IGOERAK GUZTIRA ...		209.955.798,-

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako Gerakina	93.817.240,-
VII	Diru-sarrera konpromezuak	41.138.558,-
IX	Mailegua	75.000.000,-
GUZTIRA		209.955.798,-

Bigarren.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- PLANTILA ORGANIKOA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2000rako Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientearen aurkitzen dena.

...///...

...///...

Alkateak esaten du puntu hau eta honen ondoren tratatuko den lanpostuen zerrenda puntuan, aurreko urteetakotik dauden aldaketak arkitekto tekniko plaza bat funtzionarien plantilan sortzean eta gaur egun lan hitzarmeneko langileen plantilan dauden aparailari eta aretoen garbitzaile lanpostu bat amortizatzean daudela, azken hauek beraien titularraren jubilazioaren aurrean.

Osoko Bilkurak, Plantilla Organiko hau aztertu ondoren, aldeko 9 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), onartzea erabakitzen du.

VII.- LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2000 urteko Udal Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, Lanpostuen Zerrenda hau aztertu ondoren, aldeko 9 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), onartzea erabakitzen du.

VIII.- ABERRI EGUNA.-

Alkateak esaten du Udalbiltzatik Udaletan aberri egun bateratuak egiteko egindako deialdiaren aurrean, honako puntu hauek onartzea proposatzen dela:

1.- Aberri egun bateratua egitea. Aberri egun bateratu honen egitaraua honako hau izango litzateke:

- Goizeko 10etan txistularien kalejira.
- 12 terdietan, Udaletxeko balkoi nagusian ikurriña jartzea eta ondoren Udalbiltzaren idatzia irakurtzea.
- Oin Arin dantza taldeak "agurra" eta "ikurrin dantza" esakiniko ditu Udaletxe aurrean.
- Hamiketakoa.

2.- Egitarau hau etxez etxe buzoneatzea herritar guztiei ekitaldi honetan parte har dezaten eta etxeetako leiho eta balkoiak ikurriñaz apain ditzaten gonbitea luzatuz.

Jarraian Alkateak Udalbiltzak "EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN" izenburupean aberri egunerako prestatu duen manifestu irakurtzen du. Manifestuak honela dio:

"Gaur, apirilak 23, igandea, Aberri Eguna da. 1.931tik, egun hau gure Herriaren eguna izan da, eta, beste herri askotan egiten den antzera, gure nazioaren berrespen baketsu eta kolektiboa ospatuko dugu gaur. Egundonekin, euskaldun guztiak batzea dugu helburu, gure nortasunaren adierazpen askea eginaz eta gure herriaren biziraupen borondatea alaiki aldarrikatuz.

Euskal herria nazioa da eta nazio bati dagozkion eskubide politikoak ditu. Eskubide horiek aldarrikatzera dator gaurkoan UDALBILTZA.

...///...



...///...

Herri bezala, nazio bezala irautea eta garatzea dugu helburu, ez baitira makalak, XXI mende honetan, etorkizunari begira, ditugun erronkak. Izan ere hor dugu aurrez aurre, munduan zehar, ekonomi eta kultur alorreko globalizazioaren fenomenoak. Globalizazio honek errotik astintzen ditu gure gisako herri baten ekonomia, kultura, hizkuntza eta gizartea bera ere. Eta uniformizazio fenomeno horri erantzuteko beharrezkoa da herri honek bere baliabide politiko, instituzional, ekonomiko edo kulturalak zehaztu eta bideratzea. Horrexegatik gatz, hain zuzen ere, Aberri Eguna ospa dezaten gonbitea luzatzera hiritar guztiei.

Horretan ari gara, Euskal Herriaren nazio kontzientzia demokratikoan sakonduz, herri bezala aurrera egiteko lanabesak martxan jartzen. Aipatu erronka horiei ekiterakoan Euskal Herriak bidean aurkitzen dituen zailtasunak ez dira nolanhikoak, eta horiek gainditu eta ezabatzea da gure helburua, euskal herritar guztion arteko eztabaida demokratikoari bide emanez, gure arteko harremanak sakonduz eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko nahiz hizkuntza alorrekoari bermea eskainiz, inongo indarkeria edo inposaketa jarrikerarik gabeko giroan.

Horregatik, ozenki adierazi nahi dugu euskal herritar guztien borondate librearen gainean soilik eraiki daitekeela Euskal Herria nazio moduan, inolako aurrebaldintza eta mugarik gabeko eztabaida demokratiko eta politikoaren bitartez. Herritar eta ideia anitzez osaturiko herri honetan dauden proiektu politiko guztiak leku izango duten eskenatoki demokratiko eta baketsuaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu gure gain.

Hausnarketa hauen inguruan burutu dugu aurtengo Aberri Egunaren deialdia, alegia, udal izaeran oinarritzen den euskal instituzio nazional honek eraikuntza demokratikoari begira hartutako ardurak berresteko asmoz. Ospakizun eguna da, baina baita konpromisozkoa ere, euskal gizartearen etorkizuna bakean, justizian eta askatasunean eraiki nahi dugulako. Euskal Herriaren eguneroko eraikuntzan orain artean egindako bideari jarraitzeko borondatea agertzen baitugu, gaurko zitaren bidez.

Aurtengo Aberri Egunak, bada, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa oinarritzat hartzen duen nazio eraikuntza libre eta demokratikoari zabaltzen dio leihoa, alderik alde, inposaketa eta zapalketa orori aurre eginez, irekitasuna ikurtzat harturik. Gatazka politikoa eta honen ondorio larrirentzat behin betiko soluziobidea mahai gainean jarritz, alegia, burujabetza eta lurraldetasun eskubideak ezagutuak izango dituen Euskal Herriaren onarpenera.

Beraz, herrigintza guztion eginbeharra da, eta guztiok behar gaitu, inor baztertu gabe.

Udalbiltzak hala uste du eta hauxe dio: etorkizuna euskal hiritarren eskuetan dago, herri honen eraikuntza nazional eta demokratikoaren eskuetan. Horregatik, dei egiten diegu hiritar guztiei, Aberri Eguna guztion artean alaiki ospa dezagun."

Honen ondoren bozketan jartzen da aberri egunerako proposamena eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botuz (EAJ,EA, EH) eta aurkako botu batez (PSE-EE) onartu egiten da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Lamy zinegotziak aurtengo San Prudentzio Jaien egitarau liburuxka banatzen du Oso-

...///...

...///...

ko Bilkurako partaideen artean eta jarraian egitarau honen barruan udal partaideek parte hartuko duten ekintza, egun eta orduen zehazteari ekiten dio.

Amundarain zinegotziak hurrengo asteburuan tabernariak antolatutako 2 egun horien non tratatu den galdetzen du.

Lamy zinegotziak erantzuten dio batzordean tratatu zela eta baiezkoa erabaki zela.

Agirre zinegotziak esaten du zinegotzi bat falta dela hemen eta zinegotzi horri soldata ordaintzen al zaion galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio baietz beste guztiei ordaintzen zaien moduan ordaintzen zaiola dagokion ordainsaria.

Alkateak bailara mailako industrialdea sortzeari buruzko informazioa ematen du.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko bederatziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

